

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

72/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Mendekotasun edo gaixotasun larrigatiko lizentzia ordezten duen zaintza-lanetarako baimena arautzen duen Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2019ko abenduaren 26ko ebazpenaren kontra Vitoria-Gasteizko Udaleko Sindicato Independiente de Policías Locales sindikatuak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —72/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako 1. epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 10ean

Udal legelaria

AMAYA ALFONSO ACEBO